

**Kostu egitura:**

Gure kostuak minimizatzen saiatu eta gero, hurrengoak izango dira momentuz:

**Kostu Finkoak:** Gure garajea lan egingo dugu, beraz, ez dugu ordainduko. Gure baliabide informatikoak erabiliko ditugu, doakoak izango direnak. Momentuz izango dugun kostu finko bakarra webgunearen hostinga izango da.

**Kostu aldakorrak:** Kostu hauek erosleek zenbak liburu erosten duten arabera aldatuko da, zenbat eta liburu gehiago erosi, diru gehiago ordaindu behar izango diegu entrega enpresei.

**Hedapen ekonomia:** Etorkizun batean aplikazioa harrera ona badauka eta beste sektore batera hedatzeko nahikoa handitzen bada, literaturarekin eta aisialdiarekin zerikusia duten beste produktu batzuetara zabaltzea pentsatu dugu. Adibidez, serie edo pelikulak salmentan izatea ideia bat da.

Negozia ondo badoa eta beharrezko kapitala lortzen badugu liburutegi-kafetegi bat irekitzeko ideia daukagu. Honetan zerbait hartzeko aukera egongo da liburuak irakurri bitartean, gainera, gure irakurleen topagunea bihurtuko litzateke eta bertan haien ideiak partekatu ahalko litzukete.